



Fiskaltzak Lizartzako epaiketa Madrilerara eramatea eskatu du

AUZIA ▶ Regina Otaola mehatxatu izana egotzi dioten lizartzarrak uko egin zion deklaratzeari

ELKARTASUNA ▶ «Lizartzarren aurkako erasoekin amaitzea» exijitu du ezker abertzaleak ▶ 6

VILLABONA-ZIZURKIL ▶

Euskara ikastaroak antolatu dituzte

Izen-emate epea ireki dute bi udalek hilaren 28ra arte ▶ 5

RUBEN ASTIBIA ▶
ERREMONTISTA



N. GARZIA

«Erremontea polita da baina oso kirol lotua»

Larunbatean jokatu zuen azken partida leitzarrak ▶ 7

ALEGIA ▶

Gaurtik, Kalebeheran jaiak ▶ 5



Tolosako Zuzentza Jauregian deklaratu zuen Regina Otaola Lizartzako alkateak; komunikabide ugari zituen zain kanpoan. A. IMAZ

TOLOSA ▶

Trikujai diskofesta egingo dute etzi

Beotibar pilotalekuan izango da gauean ▶ 2

TOLOSALDEA ▶

'18/98 auzi'-ko inputatuek II. Bat Egin Eguna antolatu dute, «herri bezala erantzuteko»

Hilaren 23an, igandea, izango da Altsasu eta Urdiain artean; halaber, datorren astean mobilizazioak egingo dituzte ▶ 3

HEZIKETA ▶

Haurren heziketari buruz bilera, bihar

Haurren heziketari buruz arduratuta dauden guraso batzuek antolatuta, bilera-topaketa egingo dute bihar, Haur Liburutegiaren hirugarren solairuan, 17:30ean. Haur bakoitzaren bizi prozesua errespetatuko duen heziketa dute helburu, «egungo gizar-teak eta eskola-antolakuntzak orokorrean bermatzen ez duena». Deialdi irekia egiten diete eskualdeko familiei zein heziketan interesa duen orori.

GIZARTEA ▶

Odol-ateratzea egingo dute astelehenean

Datorren astelehenean, hila-ren 17an, Odol Emaleen hileroko odol-ateratzea egingo dute. Kultur Etxean izango da hitzordua, 18:00etatik aurrera.

TELEFONOAK ▶

Larrialdia. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzioz klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garrarioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besteri.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ **Tolargi:** 650016

▶ **Iurraremendi egoitza:** 670325

▶ **Tolosa gasa:** 675320

MUSIKA ▶

Ziklo berriari ekingo dio 'Mundua Tolosan' ekimenak

Cesaria Evora azaroaren 13an, Carlos Nuñez azaroaren 23an eta Black Heritage Singers, berriz, abenduaren 15ean ariko dira Leidor antzokian

INIGO TERRADILLOS

Udaberri honetan hasi zen *Mundua Tolosan* zikloa bi kontzerturekin, Marizarena bata eta Rodrigo Leao eta Ludovico Einaudirena bestea. Bi zuzenekoek ikusle kopuruari eta kritikari dagokionez izan zuten arrakasta ikusita bigarren ziklo bat antolatu dute Tolosako Udalak eta Syntoramak elkarlanean, «anbizio handiagokoa beharbada, baina orain arteko kalitatea mantenduz». Udazkeneko ziklo honek ere jatorrizko helburuari eutsiko dio, hau da, «Leidor antzokia Munduko Musiken zirkuituan erreferentzia bihurtzea, lurraldearen programazioa aberastuz».

Hiru kontzertuk osatuko dute ziklo berria. Afrikako doinuekin hasiko da, azaroaren 13an, Cesaria Evoraren sensualitate eta berotasunarekin, hain zuzen. Bertan, *Rogamar* izeneko bere azken lana aurkeztuko du. Ondoren, azaroa-



Irene Larraza Syntoramako ordezkaria eta Andoni Iturzaeta Tolosako Udaleko kultur zinegotzia aurkezpenean. I. TERRADILLOS

ren 23an, ziklo honetarako bereziki sortutako emanaldi esklusiboa izango da entzungai, lehen aldiz, Carlos Nuñez eta bere taldea Alos Quartet harizko laukote gipuzkoarrarekin batera ariko da, *Cinema do Mar* lanaren doinu zeltak eskaintzeko. Eta, amaitzeko, abenduaren 15an doinu afroamerikarretaz disfrutatuko izango da, Black Heritage Singers taldearekin.

MUSIKARIAK ▶

Hiru kontzertuak Leidor antzokian izango dira, 21:00etan.

CESARIA EVORA



Ezaugarriak. Afrika portugaldarreko emakumea da Cesaria Evora, Cabo Verdekoa, Senegaleko kostaren kokatua. Brasilera ekarritako morroien araba kulturala. *Diva descalza* ezizenez ezaguna den Cesaria Evoraren musika morna deitzen da, eta haren hitzek amodioa eta dantzari buruz hitz egiten dute. Musika

honenkin mundua liluratu du, eta 1988az geroztik ia 5 miloi disko saldu ditu mundu osoan. Bere azken lanak *Rogamar* du izena; *rogar* aditzetik (otoitz egin), eta *mar* izenetik dator. Disko freskoa, malenkoniatsua, itsasokoa, non Cesariak Afrikako kostaldean goxo jartzeko gonbita egiten duen. Gitarrak, pianoak, biolinak eta eritmo bereziak... Azken diskoan, hainbat musikarirekin lan egiteko aukera izan du, San Vicente irlako perkusio taldearekin, esaterako.

Kontzertua. Azaroaren 13an.

CARLOS NUÑEZ & ALOS QUARTET



Ezaugarriak. Carlos Nuñez musikari paregabatzat hartzen dute nazioartean, munduko musikaririk serioenen eta trebeenen artean jartzen baitute. Bere karismak ospetsu bihurtu dute Nuñez, beraren instrumentuek —gaitak eta txirulek— normalean izaten dituzten mugak gainditzeraino. Sari ugari lortu ditu: Grammy saria The Chieftainsekin —bere maisua— *Santiago* diskoagatik, Ondas saria, 2 izendapen Grammy latinoetan... 1996an hasi zen bere abentura diskografikoa, *A Irmandade de estrelas* diskoarekin. Carlos Nuñez ezusteko berri batekin dator: *Cinema do mar* egitasmoa Nuñezek *Mar adentro* filmeko musika sortu zuenean abiatua. Bere musikak irudien munduarekin duen harremana bistakoa da, eta berak sortutako abestiek soinu-bandak dirudite. Alos Quartetekin batera ariko da, Et Incarnatus kamara orkestraren baitan sortua 1999an. Musika klasiko nahiz modernoan ibilbide artistiko zabaleko musikariez osaturiko taldea. **Kontzertua.** Azaroaren 23an.

hen zikloak oso ondo funtzionatu duela Tolosan, eta maila berarekin jarraitu dugu bigarren honetan ere».

Bere aldetik Andoni Iturzaeta Tolosako Udaleko kultur zinegotzia «gustura eta ilusioz beterik» azaldu zen programazio berriaren aurrean. «Orain arte bezala, kultur arloan, Tolosa Gipuzkoan erreferente izaten jarraitzea nahi dugu». Udala eta Syntorama sustatzailearen arteko elkarlanarekin ere pozik azaldu zen Iturzaeta; «Bien arteko kolaborazioa primerakoa da, eta espero dugu antolatuko ditugun hurrengo zikloetan ere horrelakoa izateko».

Hiru kontzertuetarako sarre-rak dagoeneko salgai jarri dituzte, eta azaldu dutenaren arabera, bi hilabete geratzen badira ere, jada sarrera ugari saldu dituzte. Telekutxa, Servikutxa, www.kutxa.net edota Leidor antzokiko leihatilan eskuratu ahal dira.



BLACK HERITAGE SINGERS

Ezaugarriak. Estatu Batuetan sari gehien lortu dituen Mississippi Mass Choir formazio afroamerikarrik sortu zen. Era berean, Children of Israel eta Black Heritage Choir taldeekin ere elkarlana egin du. Black Heritage Singers taldea gospeleko izen handiez osatutako taldea da. Tolosan eskainiko duten zuzenekoari dagokionez, Gabonetako gospel kontzertua izango da. **Kontzertua.** Abenduaren 15ean.

'18/98 AUZIA' ▶

II. Bat Egin Eguna antolatu dute '18/98 auzi'-ko inputatuek

Hilaren 23an izango da Altsasu eta Urdiain artean; honez gain hainbat mobilizazio egingo dituzte datorren astean



Salaketa mobilizazioen artean itxialdia egin zuten 18/98-ko auzipetuek, Gernika-Lumon. O. CABELLO

ESTI EZEIZA

18/98 auzi-ko inputatuek eta hortik eratorritako beste makrosumarioritakoek hainbat ekimen aurkeztu dituzte datorren asterako «eskubide zibilak salatzeko».

Egitasmo berri hauen baitan, alde batetik, Bilbon, Iruñean eta Gasteizen elkarretaratzeko egingo dituzte datorren astean. Bestalde, bigarren aldia, Altsasu eta Urdiain (Nafarroa) bitarteko zelaian Bat Egin Eguna ospatuko dute. «Herri bezala erantzutea» bilatzen du egitasmo honek, «eskubide zibil eta politikoen urraketa salatzeko» helburu izateaz gain. Iturri ekonomiko bat izatea ere bilatzen dute auzipetuek. Izan ere, Nekane Txapartegi, eskualdeko auzipetueko baten esanetan, «urte eta erdi igaro da epaiketa hasi zenetik, eta honek gastu handia suposatu du guretzat, gainera batzuk lana ere galdu dute». Asteasuarrak «agonia luze bat» bezala deskribatu du makroprozesu luze hau, «oraindik epaiaren esku baikaude».

Atzo, Donostian egindako agerraldian, Teresa Toda eta Mikel Korta 18/98-ko inputatuek mintzatu ziren gainontzeko auziperatu, amnistiarik aldeko mugimenduko kide eta Egunkaria auzi-ko inputatuek

lagunduta. Izan ere, hauen ustetan, «PPk hasi zuen eta orain, PSOEk jarraitzen duen kriminalizazio eta eskubide urraketen ekimen horretan 18/98 auziaren ondotik doaz beste bi auziak ere. Prozesatuen ustetan, «Espainiako gobernuaren Auzientzia Nazionala ari da erabiltzen euskal herritarren kriminalizazioa aurrera eramateko. Horren adibide gisa aipatu zuten joan den igandean Donostian gertatutakoa, non Juan Mari Olanok Askatasunako bozeramailea atxilotu zuten. Bestalde, gertaera honetan, «EAJren ertzainek izandako jarrera» kritikatu zuten. «Honek adierazten baitu, legedi espainolak epaitu

arren, honen pean Euskal Autonomi Erkidegoko epaitegiak daudela, hauek esandakoa aurrera eramaten», azaldu du Txapartegi. Honen aurrean herri bezala erantzuteko beharra adierazi dute 18/98-ko plataformak, «gure aurka ez ezik beste hainbat euskal herritarren aurka ere ari baitira». Hala ere, honen aurrean, Euskal Herriaren alde lan egiten jarraituko zutela agindu zuten asteasuarrak atzo.

Elkartasun ekimenak

Hilaren 23an, eskubide zibil eta politikoen agertoki izango dira Altsasu eta Urdiain arteko San Pedroko zelaia. Hemen, Bat Egin Eguna ospatuko dute, 18/98 auzi-ko inputatuek antolatuta. Hemen haurrentzako nahiz helduentzako ekitaldiak izango dira. Horien artean 1.000 lagun ingururantzako babarrun jatea izango da. Joan den urteko esperientziaren ondoren, egindako akatsak konpontzen eta hutsuneak betetzen saiatuko direla adierazi dute antolatzaileek.

Honenbestez, ahalik eta jende gehien joateko asmoz, autobusak jarriko dituzte hainbat herritatik. Bestalde, larunbat honetan bilduko dira plataformako azken prestaketak egiteko.

HELBURUA

Egitasmoak «eskubide zibil eta politikoen urraketa salatu» nahi du, baita «herri bezala erantzutea» ere

AUDIENTZIA NAZIONALA

«Espainiako gobernuak euskal herritarren kriminalizaziorako erabiltzen du», dio Nekane Txapartegi

TOLOSA ▶

Lasarten dute hurrengo hitzordua duatloiariek

2007ko Euskadiko Duatloi Kros Txapelketa jokatu da bertan, etzi; distantzia motzean

ERREDAKZIOA

Etzi, larunbarekin, Lasarte-Orian, bigarren duatloi krosa jokatu da. Proba, Lasarte Igeri Elkarrekin antolatu du. Hau distantzia motzeko izango da eta bi maila ezberdinetan lehiatuko dira parte-hartzaileak. Hala, 100 duatleta baino ez dira onartuko. Gainera, modalitate honetako Euskadiko Txapelketa toki berean jokatu da, hau da, distantzia motzeko.

15:30ean emango diote hasiera lasterketari, herriko anbulategi ondoan aurkitzen den enparantzaren inguruan, bertan geldiguneak eta helmuga kokatu direlarik. Lehen oinezko lasterketa 6,3 kilometrotakoa izango da. Hau menditik barna egin beharko dute. Errepide zein hartxintxarez osatua dago ibilbidea.

Halaber, zalditokiaren inguruan kokatzen da, eta 4 kilometro neurtzen ditu. Lehen trantsizioaren ondoren, duatletek bigarren MTB atala gauzatu beharko dute. Lasarte eta Zubietako bitarteko igarobideak %98 bizikletan ibiltzeko moduko baldintzak ditu. Orotara, ibilbide guztiari bi itzuli eman beharko dizkiote parte-hartzaileak. Azken proba honetan 22 kilometro egin beharko dituzte lasterkariak. Probari amaiera emateko, 3,8 lasterka egin beharko dituzte, herrian zehar bi itzuli emanaz.

Euskal Herriko denboraldiak azken hitzordu honetara, modalitate honetan onenak diren duatletek agertuko dira. Batez ere, mountain bikean ongi ibiltzen direnak. Bertan lehiatuko dira halaber, Tolosaldeko Triatloi taldeko lasterkariak.

TOLOSA ▶

Musika Banda Garagardo Festa alaitzen ariko da

Tolosako Musika Bandak, urtero bezala, Garagardo Festan parte hartuko du. Aurten bere emanaldia gaur arratsaldera aurreratu dute. Banda Gorriti plazatik abiatuko da 20:30a aldera. Lehendabizi, Alde Zaharreko kaleetatik barna kalejira egingo dute. Jarraian, hainbat doinu eskainiko dituzte Zerkausian eta plaza Zarrean. Doinu guztiak Alemaniako Garagardo Festetan ohikoak diren martxa eta polkak izango dira, festa girotzeko eta bide batez, alaitzeko.

ANOETA ▶

Erniora joateko autobusa izango da igandean

Igande honetan, hau da, hilaren 16an, Ernioko erromeriara joateko autobusa antolatu dute Anoetako Udalak eta Herri Ikastolak. 09:00etan abiatuko da plazatik eta Alkizaraino eramango ditu bidaiariak. Berritako Anoetara itzultzeko 18:00a aldera irtingo da autobusa. Dena den, euria eginez gero, 14:30ak aldera abiatuko da. Autobusez joateko izena eman daiteke udaletxean edo ikastolan. Honetarako azken eguna gaurkoa izango da.

h

tolosaldeko eta leitzaldeko

hitza

h

Praktikak HITZAn

Kazetaritza, Euskal Filologia eta Komunikazio lizentziatutako Tolosaldeko eta Leitzaldeko ikasleei zuzendua

Curriculum-a bidali helbide hauetara:
Araba etorbidea, 5 behe- atzea • 20400 TOLOSA
tolosaldean@tolosaldekohitza.info

VILLABONA-ZIZURKIL ▶ EUSKARA

Herrian bertan ikasteko aukera dago

Bi udalek adostuta, euskara ikasteko epea zabaldu dute, hilaren 28ra arte

NEREA URBIZU

Villabonako eta Zizurkilgo udalek herritarrek bertan euskara ikasteko aukera zabaldu dute. Maixabel Arrieta eta Marian Lazkano alkateek eman zuten hau ezagutzera atzo.

Matrikulatze epea zabalik dago, hilaren 28ra arte. Baina, Maixabel Arrietak adierazi bezala, «kopurua da koska: kopurua lortu behar da ikasketak aurrera atera daitezen. Honela, talde homogeneoagoak osatu dira, eta ondorioz, eskolak herrietan bertan hartu ahal izango dira». Klaseak urrian bertan hasiko lirateke.

Euskara ikastea ahalegin handia dela ere kontuan hartu dute bi alkateak, eta honen aurrean «udalek saiakera berezia, ahalegina egingo dugu horretan lagundu nahi dugulako».

Deialdi edo gonbidapen berezia bi taldeei egin zieten:

etorkinei eta gurasoei. «Atzeritarrentzat AISA izeneko euskararen eta euskal kulturaren lehen ezagutzarako ikastaro bat antolatu nahi dugu».

Atzeritarrek eta gurasoak

Bestetik, «haur txikiak dituzten guraso horiei ere gonbitea luzatu nahi» diete, izan ere «haurrekin erraza da hitz egitea, eskolan hasten direlako eta diotena ulertzen hasteko, haiek hitz egiteko aproposa da».

Atzeritarrek eta guraso hauek dituzten helburuak zehatzak dira, «baina beste herritarrek, maila edozein dela, eta euskararekiko helburua edozein dela, gonbidapena ere luzatzen zaie».

Izena euskara zerbitzuetan eman behar da. «Premia, gogo edo nahi berak dituen ikasle kopuru nahikoa elkartzten bada, ikastaldea Villabonan edo Zizurkilgo antolatuko da».



Maixabel Arrieta eta Marian Lazkano alkateak, atzo, N. URBIZU

DIRU LAGUNTZAK

Diru laguntzak daude, eta %75 artekoak izan daitezke; horretarako baldintza batzuk bete behar dira

Bestalde, Marian Lazkano Zizurkilgo alkateak matrikulatze diru laguntzak daudela gogoratu zuen: %75 artekoak izan daitezke laguntzak. Horre-

tarako hainbat baldintza bete behar dira, besteak beste, «bertakoa izatea». Agerraldi honekin «herritar guztiak animatu nahi ditugu. Guk geuk aintortzen dugu ikastea zaila dela, baina asko eskertzen dugu ikasteko erakusten dutenen ahalegin hori».

Baina, gaineratu zuen Maixabel Arrietak, «ea noiz bukatzen diren euskarako klaseak emateko garaiak, horrek, euskara denok dakigula esan nahiko duelako».

ALEGIA ▶

Ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago

Eskulanak, mantentze soinketa, memoria lantzekoa eta aerobic daude aukeran

ERREDAKZIOA

Alegiko Kultur eta Kirol Etxeak antolatu ditu hainbat ikastaro. Urrian hasiko dira eta egunak eta orduak dagoeneko zehaztu dituzte. Aerobic, soinketa, gimnastika eta memoria lantzekoa izango dira.

Aerobica astelehenean eta asteazkenean 18:30etik 19:30era eta astearte eta ostegunetan 19:30etik 20:30era.

Mantentze soinketa astelehenean, asteazken eta ostiralean 15:00etatik 16:00etara. 3. adinekoen gimnastika, berriz, astelehena, asteazkena eta ostirala goizez, 11:00etatik 12:00etara.

Eskulanak asteazkenetan 10:00etatik 12:00etara izango dira. Memoria tailerra asteartetan 11:00etan ordu batez.

Izena astelehenean aurrera eman daiteke Kultur Etxean, goizez edo arratsaldean.

ALEGIA ▶ JAIK

Kalebeherako festak gaur hasiko dira eta igandera bitarte iraungo dute

Bihar entzungo da suziria; hurrengoetan, bertsoak eta kirola nagusi

N. URBIZU

Kalebeherako festak hasiko dira gaur, eta zine-kluba da hasiera emango diona. Igandera bitarte izango dira, eta dena Kalebeherako plaza inguruan egingo dute. Dantzariak, musika, erromeria eta lehiaketak izango dira nagusi lau egunetan zehar.

Aurten, Hamaika Bertute da platerik sendoena jaietan: bertsolarien emanaldi berezia da, eta jende asko espero dute. Pilota, pala, patata tortilla lehiaketa eta trikitaliak ez dira faltako. Herriko gazteek antolatutako jaiak dira datorren egunetakoak, eta aurten zinekluba gehitu diote.

EGITARAUA ▶ EGUNEZ EGUN

GAUR
21:30. Zine-kluba Gaztetxean.

BIHAR
Arratsaldean. Umeen pilota partidak.
19:00. Suziriak, buruhandiak eta patata tortilla lehiaketa.

Ondoren. Jagoba, Amets eta Josu hirukotea.

ETZI
12:30. Krosa.

16:00. Pala Txapelketa pilotalekuan.

21:00. Zahagi ardoa.

23:00. Bertso saioa Hamaika Bertuteraren eskutik.

▶ Bertsolariak: Unai Muñoa, Aitzol Barandiaran, Uxue Alberdi eta Iñaki Gurrutxaga bertsolariekin. Gai jartzaila Iker Iriarte izango da.

▶ Ondoren: trikitalia Elustondo anaia-arrebekin.

IRAILAK 16, IGANDEA

12:00. Dantzarien emanaldi.

12:30. Txakolin probaketa eta sardina erreak.

15:00. Bazkaria.

17:00. Umeen pilota partidaren finala eta palako finala.

21:00. Zahagi ardoa.

22:00. Mus Txapelketa, festen bukaerarekin batera.



Patata tortilla lehiaketa aurten ere izango da, ostiralean. N. URBIZU

Nierebai, Niere... naiz. Nierehorizango re. K... odi... Niereho... e... Nipozikjoango at... ortxeizangonaiz gu... tesentitukonaiz. Koi tu Kontak... itukogara. Kontuzaharrak

Nik ere nahi nuke..

LIZARTZA ▶ POLITIKA

Auzitegi Nazionalera eraman nahi dute epaiketa fiskaltzak eta Otaolaren abokatuak

Epailearen aurrean ez zuen deklaratu Otaola mehatxatu izana leporatzen dioten lizartzarrek; beste bi herritarrek hurrengo astean joan beharko dute epaitegira



Elkarretaratzea burutu zuten ezker abertzalearen jarraitzaileek epaitegi kanpoan. A. IMAZ

ASIER IMAZ

Euskal Autonomi Erkidego fiskaltzak eta Regina Otaola (PP), Lizartzako alkatearen abokatuak, Tolosako epaitegian eskaera bera egin zuten atzokoa; P.O.Z. lizartzarren aurkako kasua, Tolosako Zuzentza

Jauregian epaitu beharrean, Madrilgo (Espainia) Auzitegi Nazionalen epaitzea hain zuzen ere, ustezko delitu terroristatengatik.

Atzo 09:30ak zirenean, Regina Otaola, hiru alderdikide eta bizkarzainez lagundurik, Tolosako epaitegian sartu zen. Kan-

poan kazetari eta ertzain ugariaren artean, 30 lagun inguru bildu ziren *Errepresiorik ez. Otaola kanpora* leloa zeraman pankartaren atzean.

Regina Otaola alkatea 11:30ean hasi zen deklaratzeko. Ordu erdira, Otaolak amaitu zuzenean, P.O.Z. lizartzarri zu-

zentza Jauregira gerturatzeko deitu zioten, epaileak deklarazioa hartu zieziaion. Lizartzarrek ordea, ez zuen deklaratu nahi izan.

Hasieran gertaerak «falta bezala» epaitzeko asmoa baldin bazegoen ere, epaitegiko iturriek jakinarazi zuten, gertaerak orain «delitu bezala» epaituko omen dira. Regina Otaolak onartu zuenez, bere abokatuak, «auzia Auzitegi Gorenaren esku uztea eta mehatxua delitu terroristatzen datzea» eskatu zuen. Gaur edo bihar emango du epaileak eskaera hauen inguruko erabakia.

Elkartasuna auziperatuei

Ezker abertzaleak bere aldetik, Aitor Aranzabal, Batasunako mahai nazionalako kidearen eskutik, «lizartzarren aurkako erasoekin amaitzea» eskatu zuen, «hiru herritarren aurka

PPren agintariek prestatu duten muntaia» salatuz. Regina Otaolak herrian «sortu dituen istiluen aurrean», Tolosako Zuzentza Jauregiaren kanpoan, ezker abertzaleak egin duen lau puntuko balorazioa irakurri zuen ondoren Aranzabalek.

Bertan, PPren agintarien eta «batez ere lizartzarren borondatearen kontra alkate gisa joaten den Regina Otaolaren jarrerara salatu» nahi izan zuten. Lizartza «estatu kontu bilakatu izana» ere leporatu zien Aitor Aranzabalek. «PPk ezker abertzalearen kontrako estrategian hiru lizartzar akusatu eta epaituak izan daitezkeen lortu du. Estrategia horretan ANV-EAE jopuntuan jarri, betiere alderdi historiko honen ilegalizazioa bultzatu nahian».

Ertzaintzaren aurkako hitzak ere izan zituen Aranzabalek, «inposaketa antidemokratikoa gauzatzeko ertzainek erakusten ari diren jarrera salatu nahi dugu, izan ere, trufa eta iraintzera etorri diren agintariak babesten eta herritarren borondatearen aurka aritzen direlako».

Azkenik, atzo zein hurrengo astean, «hilaren 18 edo 19an» epaituko dituzten lizartzarrei elkartasuna adierazi zien, «izan ere, Lizartzako herriak eta herritarrak jasaten ari diren lintxamendu politikomediakoaren gainetik, borondate irmoa dagoelako eskubide demokratikoak berreskuratzeko».

IBARRA ▶ GIZARTEA

Jaiak antolatu ditu Bizi-Nahi jubilatuen elkarteak gaur hasi eta iganderarte

ERREDAKZIOA

Ibarrako Bizi-Nahi jubilatuen elkarteak jaiak antolatu ditu datozen egunetarako. Gaur hasiko dira ekitaldiak eta iganderrarte iraungo dute. Aurten 25 urte betetzen ditu elkarteak eta hainbat ekitaldi prestatu dituzte egun hauetarako: mahai jokoen txapelketak, ibilaldi neurtua, afaria, toka txapelketa, haur jaialdia, bazkaria... Badute zer aukeratu Bizi-Nahi elkarteko bazkideek.

EGITARAUA ▶

GAUR

12:00. Jaien hasiera, bandera jasotzea eta txupinazioa.

16:00. Mus, tute, eskoba eta puntuko txapelketak.

20:00. Lunch-a bazkideentzako.

BIHAR

09:00. Ibilaldi neurtua adinekoentzat. Ondoren hamaiketako partaideaentzat. 20:00. Afaria elkarteko

sukaldariak prestatuta. Ondoren, dantzaldia.

ETZI

11:30. Toka txapelketa. Gero partaideaentzat hamaiketako.

18:00. Haur jaialdia: jolasak, txokolatada eta opariak.

IRAILAK 16, IGANDEA

08:00. Diana herriko trikitilariak. 11:00. Meza San Bartolome elizan hildako bazkideen oroimenez. Ondoren parrokiako koruaren kontzertua eta agurra Alurr taldeko dantzariak.

14:00. Lagunarteko bazkaria Belabieta pilotalekuan. Ondoren dantzaldia.

19:30. Jaien amaiera.

iragarki laburrak ▶

ALOKAIRUA

Pisua. Neska gazte bat ikasle pisu bila dabil. Tolosan. Deitu: 652 77 45 05.

IBARRA ▶ GIZARTEA



Haur eta emakumeen eskola materialentzat dirua

A. Imaz ▶ Urtero bezala, Sendi Ekintzak San Bartolome zozketa antolatzen du Ibarrako jaietan. Lortzen den dirua sarietan banatzeko ohitura, euroaren sarrerarekin aldatu zen, izan ere, aldaketarekin irabaziak lortzen hasi ziren. Irabazi hauek, urtero bezala proiektu batetara bideratzen dituzte. Aurten Ibarratik Misio Taldearen Goghako (India) proiektura bideratuko dituzte A. IMAZ

ERROMERIA LEGAZPIN!

Irailaren 16an, igandea, Lakiolan, 12:00etatik aurrera. Koadrilen arteko apustu latza, bertsolariak, jokoa eta erromeria bikaina Elustondo anai-arrebekin! Autobusa, bazkaria eta taberna. Euskarazko Zingí Zango webgune berriaren alde. **Animo zaitetz!** Euria eginez gero, Urbeltz pilotalekuan egingo da.

RUBEN ASTIBIA ▶ ERREMONTISTA

«Erremontea oso kirol polita da, baina aldi berean oso lotua»

Ruben Astibia erremontea uztea erabaki ondoren, joan den larunbatean azkeneko partida jokatu zuen

NAIARA GARZIA

Ruben Astibia (Leitza, 1976) 12 urte egin ditu erremontean, horietatik 7 profesionaletan. Joan den larunbatean profesional mailari agur esan zion Galarretan jokaturako partida batekin.

Zergatik hartu duzu erabaki hau?

Lanean ordu asko sartzen nenen eta gaizki ibiltzen nintzen pilotara joateko, beti laisterka. Laneko txandaren arabera, askotan beste lankideren bati txanda aldatu behar izaten nion. Erabat itota egotera ez naiz iritsi, baina beti ardura horrekin nenen. Pixka bat lasaitu nahi nuen eta dagoeneko urte batzuk egin ditut. Gainera egin beharrekoak egin ditudala ikusi dut.

Erraza al da erremontetik bizitzea?

Dirua ateratzen duzu baina zer gastatzen duzun, horrek ere zerkusia badu. Ongi bizitzeko oso gora ailegatu behar duzu eta gainontzekoek jokatu eta aldi berean lan egiten dute.

Pilota baino gogorragoa da zentzu horretan?

Nire ustez esku pilota hobeki ordainduta dago. Gero telebistan indar gehiago du eta eza-gunago da.

Zure ustez erremontea me-rezi duen lekua ba al du?

Beraiek hori orain arte gutxi

landu dutela uste dut. Erremontean ardatza beti apustua izan da, jendea zahartzen joan da eta gazterik ez da sartu. Ondorioz maila jaisten joan da. Orain horretaz konturatzen hasi dira eta bizi gehiago ematen hasi dira. Beraien errua ere izan dela uste dut, ez dute ahalgin berezirik egin adibidez eskolak jartzeko.

Gauza asko utzi al dituzu erremontearengatik?

Gauza batzuk bai. Nire parrandak ere egin ditut, eta ahal nuen atera naiz, baina bidaiek egiteko aukerarik ez dut izan. Festak iristen zirenean, edo Eguberriak edo oporretara joateko orduan nik beti muga hori nuen. Halere oso ongi bizitu naiz, ezin naiz kexatu. Oso urte onak pasatu ditut. Bere alde onak eta txarrak ditu.

Poza eta betetasun asko eman al dizkizu?

Bai, lagun onak egin ditut. Gauzik hobereana gure arteko giroa izan da, oso ongi ematen ginen elkarrekin. Bestalde debuta egin eta urtebetera lesio txar bat izan nuen eta belauna izurratuta gelditu zait.

Zuk espero adina aukera eman al dizkizu enpresak?

Nik uste gehixeago egiteko aukera izan nuen, baina erabakiak enpresak hartzen ditu. Debuta egin eta urtebetera belauna lesionatzeak, nik uste horrek zentzu horretan kalte



N. GARZIA

egin zidala, enpresak nirekiko zuen konfidantza. Baina alde horretatik lasai nago, ez dut hasi nahi beste zerbait egin izan banu eta horrelakoetan pentsatzen.

Larunbatean Galarretan jokatu zenuen azkeneko partida. Nolako izandu zen?

Herriko jende dezentea joan zen eta oihu batzuk egin zituzten. Politia izandu zen. Gainera irabazi egin genuen eta bukatu zenean denak txaloka eta oihuak hasi ziren. Orduan bete-bete egin nintzen.

Azkeneko partida zuk aukeratutakoa izan zen.

Bai. Partida hobea bat jokatzeo aukera eman zidaten, baina nik ezet esan nuen, nahiago nun betikoekin jokatu.

Kaskoa, belaunetakoak eta galtzak ere oparitu egin zenuen.

Bai, nik horiek denak orain alferrrik baititut. Kamisetak gorde egin ditut, oroigarri bezala, baina belaunetakoak eta kaskoa orain alferrrik ditut.

Ez duzu beraz gehiago zure kaxa jokatzeo asmorik?

DIRUA

«Ongi bizitzeko oso gora ailegatu behar duzu eta gainontzekoek jokatu eta aldi berean lan egiten dute»

ERREMONTA ORAIN

«Erremontean ardatza beti apustua izan da, jendea zahartzen joan da eta gazterik ez da sartu»

AUKERAK

«Nik uste gehixeago egiteko aukera izan nuela, baina azkeneko erabakiak enpresak hartzen ditu»

Egunen batean beharbada frontoira joango naiz, baina lasai-lasai ibiltzera.

7 urte egin dituzu profesional bezala, eta lehenago beste 5. Gogoan duzun unerik politena zein da?

Nik uste politena lehenengo partida izan zela, debuta. Gainera abuztuaren 13an zen, herriko festetan, eta lehenengo egunetan ez nintzen batere atera, zintzo-zintzo ibili nintzen. 5 urte aritu nintzen entrenatzen, eta eguna iritsi zenean oso polita izandu zen. Entrenamenduetan beti bakarrik aritzen ginen eta txapelketetan jende gutxi biltzen zen, ate, ama, lagun bat eta bat-batean frontoian jende pila bat ikustea...

Ze balorazio egiten duzu urte hauetaz guztietaz?

Balorazioa oso ona. Orain bizitzaren beste aro bati ekingo diot. Pena pixka bat beti ematen dizu eta denborarekin hutsunea gehiago somatuko dut, baina lanetik atera eta denbora gehiago izan dut, askatasun gehiago. Erremontea oso kirol polita da, baina aldi berean oso lotua.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Anoeta. Euskal dantza ikastaroa antolatuta du Anoetako Udalak (3 urtetik aurrera). Izen-ematea, 9:00etatik 13:00etara. Informazioa, 943 651200.

Ibarra. Bizi nahi jubilatuta elkartearen 25. urtemuga: 12:00etan txupinazoa eta bandera albatzea; 16:00etan mus, tute, eskoba eta punttu txapelketak eta 20:00etan luntxa.

Leitza. Jeiki abesbatzak kantu klaseak antolatuta ditu herritar guzietei zabalik, urritik aurrera Iruñeko Eugenia Etxarren irakaslearekin. Izen-ematea, 635 714235 telefononon 16:00etatik 18:00etara.

Tolosa. 9. Garagardo Festa Zerkausion 18:00etatik 24:00etara. 20:00etan DJ Black eta 20:30ean Tolosako Musika Bandaren kalejira Alde Zaharretik Gorriti plazatik abiatuta (Zerkausion eta plaza Zarrean pieza batzuk eskainiko dituzte).

Tolosa. Tolosa CFko atletismo taldean parte hartu nahi duten 91-92 (jubenilak) eta 93-94 (kadete) urteetan jaiotako neska-mutilek Berazubiko pistan agertu behar dute ostiralean, 14, edo astelehenean, 17, 17:30ean kirol arroparekin.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Gotzon Etxeberria artistaren *Olibondoak badu bihotzik* eta Josep M. Codinaren *Orografia personal* pintura eta eskultura erakusketak Aranburu Jauregian.

Zizurkil. Eibarrena auzoko Arantzazuko Ama elizaren 50. urtemuga dela eta, argazki erakusketak antolatuta dute Atxulondo kultur etxean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.
Goizuetan. Apeztebea, L. M. Kale Nagusia, 64. 112.
Arribe. Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Edertasunak ez du mugarik

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Animalia batean, naturan topaturiko harrizka batean edota kale artean topatu dute gure parte-hartzaileek edertasuna

SENDIA VIVA PARKEA (NAFARROA) ▶

Amaia Zabala (Amezketeta).

Animalia bat heldu zaigu lehiaketara. «Abuztuan Alfaron (Errioxan, Espainia) izan naiz eta handik gertu dagoen Nafarroako Argedasen dagoen Senda Viva parkean hain ederra den animalia honi ateratako argazkia bidaltzen dizuet. Ikusten duzuenek lasai dago baina aurretik izan zituzten elkarren artean liskarrak, izan ere best zuden elkarrekin».



BALAITUS MENDIA (PIRINIOAK) ▶

Mikel Arostegi (Tolosa).

Mikel Arostegik mendia aukeratu uda honetan oporraldiak igarotzeko. Argazkiarekin batera azalpen hau bidali digu. «Erreka goroldioan irrstan. Pirinioetan, abuztu honetan, Balaitus mendi ezagunaren inguruan».



RODAS (GREZIA) ▶

A. Iraola Olasagasti (Tolosa).

Argazki berezia bidali digu tolosar honek eta zera kontatu digu. «Abuztuan, Greziar irletatik kruzero bat egin digu. Argazki hau, Rodaseko kale batekoa da».

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitzaan Udaletxeko bulegoa